

UPV/EHuren LOKALAK ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO TARIFAK
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien atala

Instalazio mota	1. TARIFA Ordu solteak Prezioa orduko	2. TARIFA Egun osoa 8:00etatik 20:00etara	3. TARIFA Egun erdia 8:00 - 14:00 eta 14:00 - 20:00
Gimnasioak	40	202	101
Gorputz adierazpeneko eta psikomotrizitateko gelak	20	81	51
Futbol 11ko zelaia	40	303	152
Futbol 7ko zelaia	20	152	76
Kiroldegi osoa (areto futboleko bi zelai)	40	303	152
Kiroldegi erdia (areto futboleko zelai bat edo saskibaloiko zelai bi edo boleiboleko kantxa bat)	20	152	76
Erabilera anitzeko aretoa	20	81	51
Tatamia	20	81	51
Muskulazio gela		20	
Eskalada horma		20	

Tarifak aplikatzeko arauak:

Ordu zatiak goitik biribilduko dira ordu erdia gainditu bada, edo behetik, ordu erdira heldu ez bada.

Tarifan espazioaren alokairua baino ez da sartzen. Horri gehitu beharko zaio lokala garbitzeko lanaren kostua eta zerbitzua emateko behar diren langileena (atezaina, ikus-entzunezkoetako teknikaria eta abar).

Fidantza kalkulatzeko (alokairuaren kostuaren % 25, BEZ barik) orduen estimazioa hartuko da kontratuaren hasieran.

Instalazioetako aldagelak eta dutzak ez daude prestatuta gurpildun aulkia darabiltenentzat. Kirol anitzeko pista eta futbol zelaia, berriz, prestatuta daude horrelako pertsonentzat.

Instalazio hauek bakarrik aloka daitezke eskola orduetatik kanpo.

Honako hauek ez dira prezioan sartzen: muntaketa lanak, aparteko prestaketa lanak, kasuan kasuko kirol materiala.

Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jartzeko, sarrera kobratzeko edo saltokirik jartzeko.

Instalazioa astero alokatzen bada gutxienez bost astean eta gehienez hamalau astean, % 20ko deskontua egingo zaio tarifari.

Instalazioa astero alokatzen bada gutxienez 15 astean, % 30eko deskontua egingo zaio tarifari.

Segidako asteak kontatzean ez dira aintzat hartuko asteburu eta jaiegunetako etenak.

Kirol anitzeko pista osoa alokatu arren, horrek ez du esan nahi eraikin osoa modu eksklusiboan alokatzen denik; aldageletan sartzan utzi beharko zaie beste erabiltzaileei, ez baitago besterik.

Kantxak, muskulazio gela, eskalada horma eta kiroldegiko ikasgelak bakoitza bere aldetik alokatu ahal izango dira. Instalazioa alokatzen denean argi eta garbi zehaztu beharko da zein elementu eta zein espazio alokatzen den.

Tatamian, gorputz adierazpeneko gelan eta psikomotrizitate gelan ez dago ez aldagelarik ez komunik. Instalaziook alokatzean kiroldegiko komunak eta aldagelak erabili nahi badira, instalazio biak garbitzeko lanak ordaindu beharko dira.

Instalazioak alokatzen badira jendearentzako orduetatik kanpo, atezain eta garbiketa zerbitzuen kostua ere ordaindu beharko da.